


**ARETXABALETA KIROL ELKARTEKO
FUTBOL SAILAREN BARNE
ERREGIMEN ARAUDIA**

U.D.A.



EDUKIA

1.	ARRAZOEN AZALPENA.....	3
2.	TALDEAREN BULEGOA (IBARRA).....	3
3.	BAZKIDE IZAERA.....	4
4.	TALDEAREN IDENTITATE SEINALEAK	4
5.	BATZORDE TEKNIKOA	4
6.	TEKNIKOAK:.....	4
7.	TALDE ORDEZKARIAK:.....	4
8.	IGOERAK, JAITSIERAK ETA FUTBOLARIEN LAGAPENA	5
9.	TALDEAREN ETA KIROLARIEN ARTEKO HARREMANA	5
10.	TALDEAREN KAPITAINA.....	5
11.	ENTRENAMENDUAK, PUNTUALITATEA ETA JANZKERA	6
12.	TALDEEN DESPLAZAMENDUAK.....	7
13.	FUTBOLARIEN DESPLAZAMENDU PARTIKULARRAK	7
14.	IBARRARA SARTZEA.....	8
15.	LAGUNTZA MEDIKUA	8
16.	ATSEDENERAKO ORDUTEGIA	8
17.	ZITAZIOAK	8
18.	BAIMENAK	9
19.	BESTE KIROL JARDUERA BATZUK	9
20.	DEKLARAZIOAK KOMUNIKABIDEETAN	9
21.	TXOSTENAK	9
22.	ZIGOR ERREGIMENA.....	10
23.	ARAU KOMUNAK.....	12
24.	DISZIPLINAZKO ERANTZUKIZUNA.....	13
25.	DISZIPLINAZKO PROZEDURA	13
26.	BARNE ERREGIMEN ARAUDIAREN ALDAKETA	14

ARETXABALETA KIROL ELKARTEKO FUTBOL SAILAREN BARNE ERREGIMEN

ARAUDIA

U.D.A.

1. ARRAZOIEN AZALPENA

UDA berez talde afizionatu bat bada ere, ezin dugu ahaztu bere helburuetako bat kirol mailak igotzea dela eta gainera, bere futbolariak prestatu eta sustatu egin behar dituela, taldearen goiko kategorietan joka dezaten.

Gizatalde orok arau batzuk eduki behar ditu aurrera egiteko, eta bereziki kirol talde batek, Elkartea osatzen duen kide bakoitzak portaera jarraibideak ezagutu ditzan eta ez zituela ezagutzen inoiz esan ez dezan.

Arau batzuk jartzea askotan ez da denon gustukoa izaten eta zaila izaten da batzuetan ulertzea zergatik jartzen diren; nolahi ere denborak aurrera egin ahala inork ez ditu zalantzan jartzen eta denek ulertzen dute, eta bereziki futbolariak, behar beharrezkoak direla egunerokoari aurre egiteko, taldearen seriotasuna baita jokoan dagoena. Zentzu horretan UDAtik kanpo geratuko dira arau horiek bere egin eta betetzen ez dituztenak.

Elkartea osatzen dugun guztiok Barne Erregimen Araudi honen jakitun izan gaitzen, denboraldiaren hasieran jokalariei eta teknikariaren artean banatuko da, bakoitzari bat emanez. Baita egiten diren aldaketak eginda ere –puntualki jakinaraziko direnak- Arautegiak datozen denboraldietarako ere balioko du. Gainera edozeinen eskura egongo dira, bai taldearen web orrian, baita iragarki taulan eta taldearen bulegoetan ere.

Elkartean sartzen den edonork ale bat izango du eskura, sartzen den momentu beretik.

2. TALDEAREN BULEGOA (IBARRA)

Astelehenetik ostiralera egongo da irekita, arratsaldeko 5etatik gaueko 8ak arte.

Bertako arduraduna Kirol Zuzendaria izango da; edozein arazo izanez gero harengana jo beharko da.

Bulegoa lan leku bat da, hori dela eta eskatzen da egin beharrekoak egiteko denbora soilik egotea eta bukatutakoan hitz egiten edo komentarioak egiten geratu gabe bertatik irtetea.

Bulegoan egiten den lanarekin zerikusirik ez duen edozein komentario edo hizketalditxo egin nahi izanez gero, Ibarako beste instalazio batzuk erabili beharko dira.

Partida egunetan, oso beharrezkoa ez bada salbu, bulegoan Zuzendaritzako kideak eta teknikariak soilik sartuko dira eta bulegoa giltzaz itxita egongo da.

Futbolariaren batek Presidentearekin elkarrizketa bat izan nahi badu, hitzordua eskatu beharko dio Taldearen Ordezkaritari, nahiz eta berehala atendituko zaion beti ere Presidenteak libre badago.

Funtzioren bat duten zuzendaritzako kide edo teknikari arduradunek soilik hitz ahal izango dute beste Erakunde, Federazio edo Mutualitate batzuekin.

3. BAZKIDE IZAERA

UDAREN parte den teknikari, langile edo futbolari orok taldearen bazkide izan beharko du.

4. TALDEAREN IDENTITATE SEINALEAK

Aretxabaleta Kirol Elkartearen identitate seinaleak daramatzatenak kirolari eta teknikariak izanik, beraiei dagokie Elkartek ematen duen itxura zaintzea, bai kirol arloan baita norberaren bizitza publikoan ere

Kirolarien eta teknikarien eskubide eta obligazioak, Barne Erregimen araudi honen kontratuzko klausuletan (baldin badaude) eta aplikaziozkoa den kirol diziplina legedian jasotakoak dira.

Taldearen kapitaina izango da, Zuzendaritza batzordeari zuzendutako komunikazio edo erreklamazio kolektibo oro bideratuko duena, ordezkariaren bitartez.

5. BATZORDE TEKNIKOA

Batzorde Teknikoa kirol teknikariak eta Zuzendaritza Batzordeak izendatuko dituen kide eta teknikariek osatuko dute.

Batzorde Tekniko horrek Zuzendaritza Batzordeak emandako funtzioak izango ditu. Funtzioak txosten honen A eranskinean aipatzen dira.

6. TEKNIKOAK:

- A. Ezusteko arrazoiak tarteko, entrenamendu edo partiduren batera joan ezin dutenean Batzorde teknikoari jakinarazi beharko diote, beste teknikari batek ordezka ditzan.
- B. Hutsegitetzat har daitezkeen egoeren berri emango diote Elkarteari. Horretarako txostena egingo dute eta batzorde teknikoari emango diote, hark azter dezan eta egoki diren neurriak hartzea edo dagokion isuna ordaintzea proposa diezaion Kirol batzordeari.
- C. Taldea osatzen duen jokalariren bat, mediku arrazoirik gabe eta inongo baimenik gabe, entrenamenduetara edo partiduetara agertzen ez bada, Kirol Zuzendariari jakinaraziko zaio eta hark Kirol batzordeari.
- D. Teknikoek ezingo dute beren kabuz beste talde bateko jokalaria batekin harremanetan jarri taldera ekartzeko asmoarekin. Horretarako aukerarik balego, Kirol Zuzendariari jakinarazi beharko zaio, eta hark gaia Kirol batzordearen esku utziko du. UDAREN presidentea, interesatzen den kirolariaren taldeko presidentearekin harremanetan jarriko da, eta emandako pausu eta egindako gestioen berri emango dio Kirol batzordeari.
- E. Teknikari oro, bere taldeari emandako baloien erantzule izango da eta berak antolatu beharko du baloien jasotzea nola egin baloi galerak ekiditeko edo gutxienez galera hori murrizteko.

7. TALDE ORDEZKARIAK:

Presidentearen ordezkia izango da ondorio guztietarako hura ez dagoenean, hala bidaietan nola partida, entrenamendu eta taldearen ekitaldi ofizialetan.

Kargua Zuzendaritzako kide bati egokituko zaio, nahiz eta funtzioetan dagoen beste edonork ere ordezkatu ahal izango duen, eta ondorengoa izango da bere lana:

- A. Taldearen fitxak gordetzeaz arduratuko da.
- B. Partidan gerta litezkeen lesio larri guztien berri emango dio epaileari, Aktan jaso ditzan.
- C. Epaileak akta eman bezain laster irakurri egin beharko da, akatsik balego momentuan bertan konpondu ahal izateko.
- D. Desplazamenduetan arauen koordinazioaz eta funtzionamendu egokiaz arduratuko da; baita espedizioa osatzen dutenen portaera egokiaz ere.
- E. Hutsegitetzat har daitezkeen egoerak taldeari jakinaraziko dizkiote, batzorde teknikoari emango zaion txostenaren bitartez, hark azter dezan eta hala badagokio egoki diren zehapen neurriak proposa ditzan.

8. IGOERAK, JAITSIERAK ETA FUTBOLARIEN LAGAPENA

Arau orokor bezala, Klubaren talde ezberdinen barruan kategoriaz igotzen den futbolari orok, azpiko taldearen (igo den taldearen) fitxa gordeko du, legez posible den neurrian.

Salbuespenez, eta kategoriaz futbolari gehiegi igo direlako ezinezkoa denean guztiek azpiko kategoriako taldearen fitxa mantentzea, Zuzendaritza Batzordea izango da esango duena zeinek mantendu eta zeinek ez.

Futbolariak, eta beti ere beren adostasunarekin, beste talde batzuetara utziak izan daitezke; kasu horretan UDAn izango lituzketen eskubide eta obligazio berdinak izango dituzte.

Zuzendaritza Batzordeak soilik erabakiko du, futbolari bat kategoriaz igo edo jaitsi, edo utzita beste talde batera joan, behin betikoz edo behin behingoz, eta beti ere, entrenatzaileen eta Batzorde Teknikoaren txostenen ondoren.

9. TALDEAREN ETA KIROLARIEN ARTEKO HARREMANA

Futbolarien eta Klubaren arteko harremana, Taldearen kapitainaren eta Kirol Zuzendariaren bitartez bideratuko da, dagokion entrenatzailearekin batera. Beste bitarteko bat talde bakoitzaren ordezkaria izango da. Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak Kirol Zuzendariaren bitartez jakingo dituzte, eta beti ere eragiten dizkieten gorabeherei dagokienean.

10. TALDEAREN KAPITAINA

Taldearen kapitainen izendapena entrenatzailearen esku egongo da; izendapena Zuzendaritza batzordeak berretsi beharko du.

Funtzio hori kirol jardueretan beteko du. Hura falta denean entrenatzaileak esango du zein izango den partidetakoa aktetan kapitaintzat hartuko dena.

11. ENTRENAMENDUAK, PUNTUALITATEA ETA JANZKERA

UDAn jokatzek esan nahi du erabateko disponibilitatea dagoela entrenamendu guztietan parte hartzeko eta taldeak jokatu behar dituen partida guztietan jokatzeko, eta bereziki lehen taldean; hori dela eta ,ez dira eragozpen garrantzitsua izango ez lan harremanak ezta ikasketak ere.

Eragozpen garrantzitsua balitz, futbolariak alde aurretik adierazi beharko du edo hori ezean, sortzen den momentuan bertan, izan ere, hileroko ordainsariak –baldin eta ordaintzen bada- futbolean jokatzeko konpromiso irmoa dakar berarekin, edo bestela murrizketa proportzionala.

Entrenamenduetan parte hartzea ezinbesteko baldintza izango da Entrenatzaileak jokalariai partida jokatzera deitzeko.

Futbolari batek aurreikusten badu, ikasketengatik edo laneko arazoren bategatik aldi baterako ez dela egongo, Elkarteari esan beharko dio beste talde bat bilatu ahal izateko.

Eguraldia edozein izanda ere entrenamenduak Kirol Zuzendariak eta Entrenatzaileak esaten duten egun eta orduetan izango dira, eta beti ere talde bakoitzean eman daitezkeen gorabeherak kontuan izanik, eta jokalariai behar bezala jantzita eta prest egon beharko dute, ariketekin puntualtasun osoz hasi ahal izateko.

Lehen bi taldeetan sortzen diren puntualtasun arazoak edo ez egoteak zigortuak izango dira, beti ere huts egitearen mailaren arabera. Eta horrek berdin balioko du, partida ofizialen zitazioetarako, entrenamenduetarako, bidaietarako, etab.etarako.

Entrenatzaileak kontrolatuko ditu entrenamenduetako atzeratzeak edo ez egoteak, eta hilero jakinaraziko dizkio taldeko Ordezkarari.

Bai taldearen Ordezkariek bai Entrenatzaileak, Elkartek futbolariari ematen dien ekipamendua era egokian erabiltzen dela kontrolatuko dute. Era berean jokalariek entrenamenduetan nahiz partidetan, zelai barruan nahiz kanpoan ematen duten irudia zainduko dute.

Entrenamendu eta partidetan Elkartek/Klubak emandako ekipamendua erabiliko da.

Futbolariak oinetako egokiak erabiliko dituzte dutxetan arazo higienikoak saihesteko eta hala egingo dute bai entrenamenduetan baita partidetan ere.

Lehenengo taldearen partidetak arropa Elkartean garbituko da, behin dagokion partida amaitzen denean; aurrez zehaztu ez den arropa jokalariai bakoitzak garbitu beharko du. Ezingo dira txandala edo kapusaia lurrean utzi erantzi ondoren eta Elkartek garbitu beharrekoa futbolari bakoitzak dagokion ontzian utziko du.

Elkartek emandako jantziren bat galtzen bada galdu zaiolak ordaindu beharko du. Lehen taldeari dagokionez titularra azaltzen ez bada, kostua taldekide guztien artean ordainduko da.

Denboraldia amaitzean futbolari bakoitzak, utzitako arropa guztia bueltatu beharko du. Itzuliko ez balitz, Elkartek jokalariai kontutik pasako du kargua dagokion zenbatekoagatik.

12. TALDEEN DESPLAZAMENDUAK

Kirol Zuzendariak antolatuko ditu Zuzendaritza Batzordeak zehaztutako desplazamenduen politikarekin bat etorritik. Desplazamendu horietan sortutako gora beherak taldearen Ordezkeriak konponduko ditu entrenatzailearekin batera.

Nahiz autobusez nahiz norberaren ibilgailuarekin egindako desplazamendu guztietara Ibarra Futbol zelaitik irtena da. Era berean buelta ere instalazio berdinera izango da.

Futbolariak, zuzendari teknikoak eta beste laguntzaile batzuk (baleude) beren kabuz joango dira esandako instalazioetara eta hantxe egon beharko dute irteera baino hamar minutu aurretik.

Futbolariaren batek beste garraio bide bat erabili nahiko balu, bai joateko bai etortzeko, Ordezkeriari esan beharko dio eta haren baimena eduki beharko du.

Ibilgailu partikularretan egiten diren kategoria baxuagoko taldeen bidaietan, Ordezkeriak edo Entrenatzaileak banatuko ditu futbolariak ibilgailuetan, bai joaterakoan baita etortzerakoan ere. Adin txikikoak beraienak ez diren beste guraso batzuen ibilgailuetan joan ahal izateko, baimena eman beharko diote UDARI idatziz. Baimenik ematen ez bada, adin txikiko haurraren gurasoek lagundu beharko diote beren seme-alabari desplazamendu guztietan.

Alderantzizko agindurik ez bada, posible da jokalariren familiartekoak jokalariekin batera autobusean joatea; horretarako ordezkeriaren baimena izan beharko dute eta leku librean egon beharko dira.

Lesio larriren bat gertatzen bada, gertuen dagoen Osakidetzaren zentrorra joan ahal izango da, edo bestela Futbolariaren Mutualitatearen hitzartutako zentroetara.

Guztiz debekatu egiten da bisitatzen diren kirol instalazioetan ezer jatea, beti ere jandakoaren hondarrak poltsa batean gordetzen ez badira, ondoren zabor ontzi batera botatzeko.

Bokadiloak jaten diren bakoitzean, Entrenatzailearen eta Ordezkeriaren ardura izango da lekua garbi uzten dela ziurtatzea. Horretarako zabor bilketa zerbitzua ezarriko da futbolarien artean eta txandaka egingo dute.

Era berean entrenatzaileak eta taldearen ordezkeriak Klubaren kirol materiala jasotzeko eta autobusetara eraman eta haietatik ekartzeko sistema bat ezarriko dute.

Autobusetan ezingo da ez jan ezta erre ere.

Autobusean doazenak era egokian joango dira eta ezingo da hankak luzatuta eta kristaletan edo beste eserleku batzuetan jarrita eraman.

13. FUTBOLARIEN DESPLAZAMENDU PARTIKULARRAK

Klubaren egungo ekonomia dela eta, beren ibilgailua eramaten duten futbolari guztiei ezin zaizkie desplazamendu gastuak ordaindu. Hori dela eta ondorengo jarraibideak jarraituko dira:

- A. Ibilgailu bakoitzean ahalik eta futbolari gehien sartuko da.
- B. Ateratzeko puntua futbolaria bizi den herria izango da, alde aurretik baimendutako salbuespena ez badu behintzat.

14. IBARRARA SARTZEA

Teknikari, Ordezkari eta Futbolari orori dagokion agiria emango zaio, erakutsi beharko dena partida egunetan Taldearen instalazioetan doan sartu ahal izateko

15. LAGUNTZA MEDIKUA

Lesiorik gertatzen bada, futbolariak lesioaren balorazioa eta egoki diren jarraibideak emango dizkio bere entrenatzaileari.

Elkartearen instalazioetan gertatutako lesio larria eta premiazkoa bada Debagoieneko Eskualdeko Ospitalean atendituak izango dira.

Gipuzkoatik kanpo izandako lesio larri eta premiazkoa bada, Futbolariaren Mutualitateak hitzartuta duen gertueneko duten sorospen zentrora joan ahal izango dira.

Era berean, GFFren Mutualitateko medikuek atenditzeko aukera izango da, astelehenetik ostiralera, aurretiazko hitzordua eskatuz.

Kasu horietan interesatua dagokion lesio parte bat beteta joan beharko da. Hori ezinezkoa balitz, Elkarteari jakinarazi beharko zaio ahalik eta azkarren, parte bidal dezaten, hori egingo ez balitz Elkarateak ez lukeelako Mutualitateak atzera botatako gastua bere gain hartuko.

Jokalariren batek ezingo balu entrenamendu nahiz partidaren batean, edo deitua izan den beste era bateko ekintzaren batean parte hartu (gaixo dagoelako edo ezinbesteko diren arrazoiengatik) Entrenatzaileari edo Elkarteari jakinarazi beharko dio, zergatik ezin duen azalduz eta beti ere dagokion jarduera izan baino ordu erdi lehenago.

Arau horiek ez betetzeko salbuespen bakarra, Entrenatzaileak edo taldeko Ordezkariak, eta ez beste inork, emandako baimena izango da.

Elkartean sartzen den futbolari orok dagokion azterketa medikua egin beharko du eta ondoren inoiz lesioren bat izango balu, Elkarateak egoki iritzitako tratamendua jarraitu beharko du.

16. ATSEDENERAKO ORDUTEGIA

Egoki eta beharrezko ikusten da jokalariek garaiz erretiratzea, beren kirol errendimenduaren eta taldearen irudiaren mesedetan.

17. ZITAZIOAK

Partida bat izan aurretik, jokalariek zein ordutan jan behar duten eta aldageletan noiz agertu behar duten entrenatzaileak zehaztuko du eta zehatz-mehatz errespetatuko dute jokalariek.

Deituta ez dauden futbolariak edozein momentutan aurkitzeko moduan egon beharko dute. Partidak lbarran jokatzen direnean, deituak izan direnen ordu berdinean agertu beharko dute instalazioetan, (Entrenatzailearen edo Zuzendaritza Batzordearen baimena badute salbu) eta deituak izan balira izango luketen janari erregimena eta prestakuntza berbera eginda, beharrezkoa balitz entrenatzaileak jokatzeo eskura izan ditzan.

18. BAIMENAK

Futbolari orok, partidetatik edo entrenamenduetatik alde egiteko edo haietan ez parte hartzeko baimena eskatu ahal izango dio Entrenatzaileari

Entrenatzaileak baimenaren berri eman beharko dio Taldearen Ordezkaritari.

19. BESTE KIROL JARDUERA BATZUK

Segurtasun arrazoiengatik eta futbolarien gogoan eragin dezaketen lesioak saihesteko, haiek ez dute Elkartez kanpo inolako kirol jarduerarik egingo, ez bada taldearen baimenarekin.

Elkartek ez ditu onartuko, Elkartek berak antolatu ez dituen kirol jardueretan izandako lesioak ezta futbolariaren erruz edo arduragabekeriagatik izandakoak ere. Zuzendaritza batzordeak, kontratuzko eskubide guztien etetea erabaki ahal izango du.

20. DEKLARAZIOAK KOMUNIKABIDEETAN

Adierazpen askatasunari zor zaion errespetua oinarri hartuta, Teknikari eta Futbolariak deklarazioak egin ahal izango dituzte bai irratian, bai prentsan baita telebistan ere.

Nolanahi ere deklarazio horietan Zuzendaritza batzordeak nahiz entrenatzaileak –jokalarien zerrendari eta ordezkapenei buruz- hartutako erabakiekiko errespetu osoa gorde beharko da, baita taldeko kirolari bati edo erakunde ofizialeko kideei larriki eragiten dien edozein gorabeherarekiko ere. Hori dela eta, eta Klubeko kide den bitartean, guztiz debekatuta dago Zuzendaritza batzordeak, Entrenatzaileek, Teknikariak, Futbolariak eta Elkarteko edozein estamentu ofizialek hartutako edozein erabaki goraipatzeko edo kritikatzeko den aitopen publiko oro.

21. TXOSTENAK

Teknikari edo futbolari orok, eskatutako txosten guztiak erantzun beharko ditu horretarako ezarritako epean.

Elkartek, txostenaren edo inkestaren edukia kontuan izanik, eta beti ere izaera orokorra badu, borondatezkoa edo/eta anonimoa dela adierazi ahal izango du.

22. ZIGOR ERREGIMENA

UDAREN Zuzendaritza Batzordeak izango du futbolari eta teknikariei zigorrak jartzeko eskumena, haiek, Araudi honen arabera hutsegitez har daitekeen zerbait egiten dutenean.

Hutsegitez hartuko da, kontratuetan eta araudietan dauden arauen urraketa oro, tipikotasun penala kontuan izanik (ekintza Ohiko Epaitegiek zigortzen badute Elkartek ez du zigortuko handik aurrera, zigor bikoitza saihesteko)

Futbolari eta teknikariek partidetan zehar mantendu beharreko portaera etikak garrantzi berezia dauka. Horregatik kiroltasun handienarekin jokatu beharko da, bai beste taldeko jokalariekin eta teknikariekin baita epaile eta jendearekin ere.

HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

Elkartearen funtzionamendu egokirako, beharrezkoa da Elkartean/Klubean eman behar ez diren portaera eta ekintza batzuk arautzea.

UDAREN kirol interesen defentsa ez da izan behar, pertsoneri eta arau ofizialei zor zaien errespetuan oinarritutako portaera desegokiaren aitzaki.

Jokalariek, epaileen eta beren laguntzaileen erabakiak errespetatu beharko dituzte beti, partidak normaltasunez eta kiroltasunez joka daitezen lagunduz.

Partidaren emaitzan zerikusia izan dezakeen akats nabarmenen bat egingo balitz, taldearen kapitaina izango da, eta bera bakarrik, epailearengana joan eta esan beharrekoak esango diona, eta beti ere errespetu osoz.

Futbolariak beste futbolari baten aurrean nahiz ikusten dagoen jendearen aurrean ezingo dute inolako errespeturik eta kiroltasunik gabe azaldu.

Entrenamendu eta partidetan, atsedendietan eta haien ondoren, bai Joko zelaian bai aldageletarako bidean, guztiz debekatu egiten da beharrezkoa den adiskidetasuna, lagunartekotasuna eta errespetua kolokan jar dezaketen inolako komentario txar edo itsusirik egitea bai epailearen lanarekiko edo beste futbolari batzuen jokoarekiko, bai entrenatzailearen, taldearen eta hura osatzen dutenen jokoarekiko.

Futbolariak aldageletan izan beharreko portaera, hasieran behintzat entrenatzaile bakoitzaren erantzukizunpekoa izango da, eta beti ere Zuzendaritza Batzordeak, gertatutakoa ikusita egoki irizten dituen neurriak hartzearen kaltetan gabe.

Futbolariak ez dute hitz itsusirik eta biraorik esango, Klubari eta pertsoneri zor zaien begirunea zapuzten dutelako.

Arau horiek urratzea zigortu egingo da; zigorra Elkarteari ekar diezaioketen kaltearen arabera izango da eta beti ere hura kontuan izanik ezarriko da.

Kontuan izan beharko da, era berean, zigorrak Klubaren Zuzendaritza batzordeak jarriko dituela, bai teknikariei dagokienean baita futbolariak dagokienean ere, nahiz eta kasu batzuetan ez jardutea erabaki dezakeen Kirol batzordearen txostena irakurri ondoren.

a. **HUTSEGITEAK** izango dira:

ARINAK:

- A. Desegokiak diren gauzak esatea, teknikariei, zuzendaritzako kideei eta beste jokalariei.
- B. Desegoki jokatzeko publikoarekin, lagunekin eta bere azpian dituenekin.
- C. Entrenatzailearengandik eta zuzendaritzako kideengandik jasotako agindu eta jarraibideekiko jarrera pasiboa izatea.
- D. Kirol materiala eta instalazioak behar bezala ez zaintzea.
- E. Deialdi, bidaia, zitazio eta entrenamenduetara ordurako ez etortzea.
- F. Elkartearen arropa jantzi gabe etortzea.
- G. Entrenamendura ez etortzea eta horretarako arrazoirik ez ematea.
- H. Elkarrekin antolatutako ekitaldietan behar bezala ez egotea.
- I. Eskatutako argibideak ez ematea.
- J. Zuzendaritza batzordeak, Barne Erregimen Araudi honen urraketa dela eta, hala iritzitako hutsegite oro.

LARRIAK:

- A. Barne Erregimen Araudi honetan jarritakoa ez betetzea, ez betetze horrek Elkarteari/Klubari kalteak sor diezazkiokeenean.
- B. Teknikariek emandako jarraibideak ez jarraitzea.
- C. Epaileak, teknikariak, zuzendariak, taldekideak, futbolariak eta publikoa iraintzea eta mintzea.
- D. Partidaren edo entrenamenduaren bilakaera zuzena okertuko duten, protesta, larderia edo indarkeria iskanbilatsua eragitea.
- E. Beren funtzioaren gauzatzean gaitutako pertsonen emandako agindu edo jarraibideak ez betetzea, baldin eta arau hauste edo hutsegite oso larria ez bada.
- F. Erakundearen antolaketara atxikitako pertsonen nahiz partida batera etorritako jendearen duintasunaren edo segurtasunaren aurkako hitzak botatzea edo ekintzak egitea.
- G. Aipatutako kirol jarduerarekin bat ez datozen jardura publiko nahiz pribatuak gauzatzea.
- H. Elkarrekin antolatutako kaltegarria den informazioa ematea.
- I. Gaixotasun edo lesio plantak egitea edo baimena eskatzea existitzen ez den arrazoiren bat emanez.
- J. Partidan zehar kamiseta kentzea bularraldea nahiz bizkarraldea agerian utziz.
- K. Arau hauste arinagatik jarritako zigorra ez betetzea.
- L. Denboraldi berean hiru arau hauste arin egitea.

OSO LARRIAK:

- A. Beste talde batekin frogak egitea, horretarako baimenik izan gabe.
- B. Egon litezkeen kontratuaren dauden obligazioak ez betetzea, eta bereziki deitua izan den partidara ez etortzea, baldin eta bere ez egotea arrazoitzen ez bada.
- C. Epaile, marrazain, teknikari, zuzendari, ikusle, taldekide eta futbolarien aurkako erasoak egitea.
- D. Partida ez jokatzeko edo entrenamendua ez egitea eragingo duten protesta, larderia edo indarkeria iskanbilatsua eragitea.
- E. Epaile, marrazain, teknikari, zuzendari, ikusle, taldekide eta futbolarien aurkako protesta zakar eta nabariak egitea.
- F. Teknikari eta zuzendariak emandako arau eta aginduak ez betetzea.
- G. Partida baten emaitza, kirolarekin zerikusirik ez duen eran erabakitzea bideratutako ekintzak.
- H. Hutsegite larriagatik zigorra ez betetzea.
- I. Denboraldi berean, arau larriak behin eta berriro egitea.
- J. Partidan zehar, kamiseta kentzea eta lurrera botatzea.
- K. Gizarte mailan izan ditzakeen ondorioengatik, oso larritzat har daitezkeen hutsegite larri oro.

b. ZIGORRAK izango dira:

Aipatutako hutsegiteak direla eta, ondorengo zigorrak jarri ahal izango dira:

- A. Ohartarazpena.
- B. Errieta publikoa.
- C. Isuna.
- D. Denbora batez jokatu gabe egotea.
- E. Kanporatzea eta kontratua bertan behera uztea.

ARINAK:

- A. Ohartarazpena.
- B. Errieta publikoa.
- C. Isuna. Urteko ordainen %10era bitartekoa izan daiteke.
- D. Denbora batez jokatu gabe egotea. Ez da astebetetik gorakoa izango.

Edozein erataria, Klubari jarritako isunaren zenbatekoa futbolariak ordainduko du.

LARRIAK:

- A. Isuna. Urteko ordainen %30era bitartekoa izan daiteke.
- B. Denbora batez jokatu gabe egotea. Ez da bi astetik gorakoa izango.

Edozein erataria Klubari jarritako isunaren zenbatekoa futbolariak ordainduko du eta gainera ondorengo zigorra jasoko du:

- Partida bat jokatu gabe = Bi (2) aste arteko ordain saria gal dezake.
- 2 partida jokatu gabe = Lau (4) aste arteko ordain saria gal dezake.
- 3 partida jokatu gabe = Sei (6) aste arteko ordain saria gal dezake.
- 4 partida jokatu gabe = Zortzi (8) aste arteko ordain saria gal dezake.

OSO LARRIAK:

- A. Isuna. Urteko ordainen %50era bitartekoa izan daiteke.
- B. Ez da inolaz ere jokalariaren eskualdatzerik onartuko eta gainera 12 asteko ordain sarien galera ekarriko du.
- C. Denbora batez jokatu gabe egotea. Bi astetik hiru hilabetera bitartekoa izan daiteke.
- D. Kanporatzea eta kontratua bertan behera uztea.

Era berean futbolariak Klubari jarritako isunaren zenbatekoa ordainduko du.

23. ARAU KOMUNAK

Isun ekonomikoak, diru-konpentsazioa jasotzen dutenei soilik ezarriko zaizkie; gainontzeko kasuetan, jasoko dituzten primetatik kenduko zaie.

Hutsegite larri edo oso larriengatik zigorrak jarri ahal izateko, beharrezkoa izango da alde zuzenetik espediente irekita izatea, Araudi honetan araututako prozedurarekin bat etorriz.

Hutsegite arinengatiko zigorrak jartzeko, ez da beharrezkoa izango espedientea irekitzea eta idatziz jakinaraziko zaizkio zigortuari.

Elkarteak, Zuzendaritza batzordearen bitartez, egoki irizten dituen neurri berriak hartzeko eskubidea gordetzen du berarentzat, ematen diren gorabeherak eta sor daitezkeen kategoria aldaketak kontuan izanik.

Taldearen ordezkariak, Entrenatzailearekin eta Batzorde Teknikoarekin batera, arau hauek ondo bete daitezen zainduko du.

Horrela, kasu batzuetan ezar daitezkeen zigorrak, oso gogorrek direla uste denean, zigor horiek neurriz aplikatuko dira, eta beti ere ekintza oso larrietarako zigor oso gogorrek onartuta egotearen kaltetan gabe.

24. DISZIPLINAZKO ERANTZUKIZUNA

Hutsegitearen aurrean egileak duen erantzukizuna bukatutzat emango da:

- A. Zigorra betetzeagatik.
- B. Hutsegiteak preskribatzeagatik.
- C. Zuzendaritza Batzordeak zigorra bertan behera utzi duelako.

Hutsegite arinak hilabetera preskribatzen dira, larriak urte betera eta oso larriak hiru urtera. Preskripzioa eten egingo da prozedurarekin hastea erabakitzen den unean bertan.

Zirkunstantzia aringarriak dira:

- A. Probokazio nabarmeneko falta baten ondoren izatea.
- B. Bat bateko damua adieraztea.

Zuzendaritza Batzordeak zigorra aplikatu ahal izango du bidezkoen iruditzen zaion neurrian, eta beti ere gertatutakoa, egilea bera eta ematen diren zirkunstantzia aringarri edo astungarriak kontuan izanik.

25. DISZIPLINAZKO PROZEDURA

Diziplinazko hutsegiteen prozedura ofizioz hasiko da, bai Zuzendaritza batzordearen eskariz, nahiz arrazoitutako salaketagatik.

Espedientea, Zuzendaritza batzordeak hartutako erabakiarekin hasiko da.

Kargu-orri bat egingo da idatziz, behin kalifikatuak izan ondoren epaitu diren ekintzei aplikatu ahal zaizkien zigorrak aipatuz.

Idatzi horretan bertan adieraziko da, kaltetuari egoki irizten dituen alegazioak, idatziz nahiz ahoz aurkezteko ematen zaion epea. Epe hori ez da aste betetik gorakoa izango.

Alegazioetan egoki irizten dena esan ahalko da eta interesatuak esango duena abalatzeko eta egozten zaizkion karguak zehazteko edo gezurtatzeko baliagarri izango diren testiguak aurkeztu ahal izango dira. Era berean kontuan hartu beharreko eta erantzukizuna aldatzeko balioko duten zirkunstantziak edo aringarriak aipatuko dira.

Alegazioak jaso edo haiek aurkezteko epea iragan ondoren, ebazpena jakinaraziko zaio interesatuari. Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da.

26. BARNE ERREGIMEN ARAUDIAREN ALDAKETA

Zuzendaritza batzordeak berarentzat gordetzen du Araudi hau denboraldi bakoitzean aldatzeko eskumena, hobetu ahal izateko; horretarako hasieran aurrekusi gabeko gorabeherak arautu ahal izango ditu edo dagoena aldatu ahal izango du. Egiten denaren berri emango da.

Oharra: Barne Erregimen Araudi hau Zuzendaritza Batzordeak onartu zuen 2013ko urriaren 14an izandako batzarrean.

